

Gizon handi baten omenez

[Egile ezezaguna]

Euskaldunon Egunkaria, 2002-06-27.

Martin Ugalde, Andoain herriko seme kuttun, EGUNKARIAko Ohorezko lehendakaria eta Kultur Parke berri honi izena emango dion idazle eta kazetari handia da. Jaiotzez andoaindarra, derrigorrean urte mordoa igaro behar izan zituen erbestean. Bizitza osoan Euskal Kulturaren alde lan egina da eta lan handi horren omenez Parkeari bere izena eman zaio.

Laborde Anaiak lantegian aprendiz izan zen gazte zelarik, erbestera jo aurretik eta patuak berriro ere bertara ekarri du, aldi honetan Kultur Parke berri bati izena emanez. Bera ongi ezagutzen dutenek "gizon kultua" bezala definitzen dute. Bizitza osoan euskal kulturaren alde jardun da, horretarako garairik errazenak ez zirenean ere.

1921ean Andoainen jaioa, Laborde Anaiak lantegian aprendiz bezala aritu zen Guda Zibilak bere bizitza trukatu zuen arte. 1936an Andoaindik ihes egin behar izan zuen bere familiarekin. Urte askotan zehar toki ezberdinetan sakabanatuta bizi izan ziren Martin, bere gurasoak eta anaia. Denborarekin familia guztia aitarengana bildu zen Venezuelara, han bizi baitzen erbesteratuta. Bertan eman zituen Martinek bere bizitzako 23 urte.

Hizlari ona, eta idazle hobe, Martin Ugalde Venezuelan loratu zen kazetari eta idazle bezala. Garai hartan politikari ere keinu egin zion Martinek eta erbestetik euskal nazionalismoaren alde lan egin zuen, klandestinitatean eginiko lana askotan.

Venezuelan *Elite*, *Nosotros* eta *El Farol* aldizkarietan lan egin zuen eta baita *El Nacional* egunkarirako. Ikasteko grinak Estatu Batuetan zenbait egonaldi egitera eraman zuen Martin Ugalde. Michigan-en ingelesa ikasi zuen. Venezuelan, berriz, ezaguna egin zen, bai kazetari bezala eginiko lanagatik, baita ipuin lehiaketa askotan jaso zituen sariengatik.

Kultur Parkea, abiapuntu eta helmuga

1969. urtean bueltatu zen Martin Ugalde Euskal Herrira. Dagoeneko bere pasio bilakatu zen kazetaritza eta literatura munduari atxikita jarraitu zuen hemen ere. *Zeruko Argia* aldizkarian eta *Deia* egunkarian aritua da Ugalde, eta berebiziko garrantzia izan zuen EUSKALDUNON EGUNKARIAren sorreran. Euskal Herriko politikan ere izan zuen presentzia Ugaldek, baina hura esperientzia emankorra izatetik urrun, atsekabeak ekarri zizkion. Berriz ere bere jaioterritik aldendu nahi izan zuten Martin Ugalde, eta mugaz beste, Donibane Lohitzunen igaro zuen denboraldi bat emazte eta seme-alabekin.

Ugaldek bere lanaren merezimendua lortu ez eta garai latzak bizi izan zituen. Baina 1976an Hondarribira etorri zen familia osoarekin bertan geratzeko asmoz. Han bizi da orduz geroztik orain hizpide dugun Martin Ugalde. Bere lana modu askotara izan da

saritua. Kazetari, idazle eta politikaria izan da Martin Ugalde eta beti ere bidean topatu dituen oztopo guztiak gainditu ditu euskal kulturaren mesedetarako.

2000n bere izena eramango duen Kultur Parkeko lehen harria jarri zuen Ugaldek eta iritsi da emaitzak ikusteko ordua. Kultur Parkeak Martin Ugalderen irudia ekarriko digu burura euskal kulturaren alde egin duen lanaren ordainetan. Laborde lantegi zaharra berritu ondoren toki berean kokatu da orain Kultur Parkea.